

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda**

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda, jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Ordaintzeko aldia:

2020ko apirilaren 20tik ekainaren 19ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

2020ko TMIZn aplikatu daitezkeen hobariak eskatzeko epea:

2020ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) eskatu ahalko dira, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duten ordenantzetan adierazitako agiri guztiak aurkeztuta.

Ordaintzeko era:

1. Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Iruña Okako Udalak zuzenean zordunduko du zergaren zenbatekoa zergadunak adierazitako kontu korrontean, 2020ko ekainaren 16an (ez du ordainagirik bidaliko).

2. Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainagiria bidaliko da):

– Zergaren zenbatekoa udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango da, astelehenetik ostiralera, jendaurreko ordutegian 09:30etik 13:30era, edo banku transferentziaren bidez.

2020ko ekainaren 20tik aurrera, ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2020ko otsailaren 11

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**